

txintxarri



Kirola eta festa

Zapatilekin, patinekin edo makilekin, Lasarte-Oria Bai! krosaz gozatzeko ordua heldu da; igande goizean jokatu da



Ges
ASEGURUAK



Kalitatezko zerbitzua da gure lanaren arrazoia

- ✓ Etxeko aseguruak
- ✓ Komunitateak
- ✓ Kotxeak
- ✓ Dendak
- ✓ Aurrezkiak
- ✓ Istripuak
- ✓ Enpresak
- ✓ Bizitza aseguruak
- ✓ Eta gehiago!





Kilometro asko hanketan; 1 zenbakidun dortsala soinean

TXETXU MERTXAN ETA FEDE OTAEGI 1 DORTSALA ERAMANGO DUTEN LASTERKARIAK Lasarte-Oria Bai! krosako edizio guztiak jokatu dituzten lasarteoriatar bakarrak dira Txetxu Mertxan eta Fede Otaegi. 24. aldiz egongo dira lasterketako irteera lerroan, igande goizean

Iñigo Gonzalez Sarobe

Ariketatxo bat proposatu nahi dizugu, irakurle. Egin memoria pixka bat, eta saiatu gogoratzeko non zeunden 1996. urteko urriaren 27an, krosaren lehenengo edizioa jokatu zen igandean. Artikulua idazten ari den kazetariak lau urte zituen. Zuetako batzuk ez zineten jaio ere egingo oraindik. Beste batzuk irteera lerroan egongo zineten, ilusioz gainezka, lasterka egiteko prest. Ostadar SKTk aurten omenduko dituen bi korrikalariak ere han zeuden, eta, 23 urte geroago, jarraitzen dute, urtero bezala; hutsik egin gabe. Txetxu Mertxan eta Fede Otaegi herritarrek eramango dute 1 zenbakidun dortsala aurten. **Antolatzaileek erabaki dute zuek omentzea aurten. Nola hartu duzue albisteak? Pozik zaudete?**

Fede Otaegi: Lotsa apur batekin, egia esan. Gure herriaren festa da krosa eta beti parte hartu dut gustura. Ez dit inoiz ahalegin berezirik eskatu; pozik egin dut.

Txetxu Mertxan: Esker hitzak besterik ez daukat. Ostadarri opa diot jarraitzea krosa antolatzen eta harrobia sortzen, orain arte bezala. Ederki ari dira.

23 edizio, bata bestearen atzetik. Igandean, 24.a. Azkar esaten da. Lesioak, konpromisoak, lana... Ez da erraza noizbait kale ez egitea.

F.O.: Txetxuk eta biok meriturik baldin badaukagu, eta zalantzak daukat horren inguruan, hori izan da: urriko igande berezi horretan irteera lerroan egon ahal izatea.

T.M.: Ez da erraza, ez. Gogoan dut duela lau urte neumoniak jota egon nintzela, gaizki, baina zortea

eduki nuela: urtarrilean gaixotu nintzen, eta maiatzean osatu. Eman zidan denbora krosa jokatu ahal izateko.

F.O.: Lasterka egiten hasi eta segituan, erretiratzea pentsatu nuen, duela hiruzpalau urte. Mina sentitu nuen hanketako batean, kultur etxe parean. Emazteari ere esan nion. Baina, bat-batean, ikusi nuen zer nolako giroa zegoen, herritarrek txaloka eta animoak ematen, eta nire barrurako pentsatu: "Nola erretiratuko naiz ni orain?". Erabaki nuen segitzea, apurka-apurka, eta lortu nuen helmugara iristea.

Zein helbururekin aterako zarete igandeko krosan? Markarik bai buruan?

T.M.: Nik ez. Iruditzen zait krosa bezalako lasterketa herrikoietan ez daukala zentzurik erlojuaren



Txetxu Mertxanek eta Fede Otaegik krosaren edizio guztiak jokatu dituzte. TXINTXARRI

menpe lasterka egiteak. Gozatu egin nahi dut nik, eta irribarretsu iritsi helmugara.

F.O.: Irribarretsu...ahal bada. Zaila da lasterketak iraun bitartean behar baino gehiago ez estutzea. Beti daude "pike" txikiak: ezagunen bat ikusten baduzu 100 metrora, harengana iritsi nahi duzu. Dena dela, ados nago zurekin, Txetxu: urteen poderioz, konturatu naiz ez daukala zentzu gehiegirik erlojuari begira joateak. Duela urte batzuk egiten nuen nik hori, hala ere.

"Pikatuko" zarete zuek igandean?

Biek batera: Ez, ez! (barreak).

F.O.: Lasterkari bakarra omendu

beharrean, hobe bi bagara! Niri lotsa dezente ematen dit...

T.M.: Hori da. Hobe bat eta bat izanda. Bi dortsalak bata bestearen ondoan jarriz gero, 11 zenbakiduna! **Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia. Zer pentsatzen duzue hitz horiek entzutean? Zer esanahi dauka?**

F.O.: Gozamina da kirol ekitaldi horretan parte hartzea: festa handi bat da. Ongi pentsatu dute ibilbidea antolatzaileek: hasten zara erdigunetik, kanpora zoaz gero, bueltatzen zara zentrorra bukatu aurretik... Ederra. Giroa, izugarria.

T.M.: Behar adina entrenatuz gero, edozeinek jokatzeko moduko proba da krosa. Asko animatzen dute

MAITE
ESTETIKA ARETOA

Adi kirolari!
Fotodepilazioa egiteko unerik egokiena da hau!

Ez galdu aukera eta zatoz prezioak galdetzeraz!

Zerbitzu mistoak

Gure tratamendu eta zerbitzuak operari-txartel moduan operatu ditzakezu!

Uistin Kalea z/g • Lasarte-Oria • Tel. 943 37 08 45

ISLANDIA (itsas bidaiak)

NORVEGIAKO FIORDOAK (itsas bidaiak)

ERRUSIA

ZETAREN BIDEA (Uzbekistan)

TALDE BIDAIAK Denboraldi aurrerapena

ESLOVENIA & ISTRIA

NOAOA BIDAIAK
T.: 943 373 613
info@noaoa.eus
Hipodromo Etorb. 10, Lasarte-Oria



zaleek: helmugara iritsi arteko azken metroak ikaragarriak dira. **1996. urtean jokatu zen krosaren aurreneko edizioa. Bertan zeudeten zuek. Gogoratzen zarete?**

T.M.: Gogoan dut garai horietan ez zeudela lasterketa asko: Behobia, Donostiako Maratoia, eta besteren bat. Kuadrillako asko animatzen ginen hasierako urteetan; orain ni bakarrik geratu naiz!

F.O.: Mugarría izan zen herriarentzat. Gogoan dut poz handiz izena eman nuela. Korrika egiten urte batzuk lehenago hasi nintzen, 1982an-edo.

Igandean zuekin batera korrika egingo duten lasterkari batzuk ez ziren jaio ere egin 1996an.

T.M.: Polita da ikustea belaunaldi berrietako gazteak ere animatzen direla krosa jokatzera; seinale ona da hori. Familian egiten dute batzuek, lagun artean besteek...

F.O.: Gazte zein heldu, herritarrek

"EZ DAUKA ZENTZURIK ERLOJUARI BEGIRA LASTERKA EGITEAK KROSA BEZALAKO PROBETAN"

ohitura hartu dute parte hartzeko. Krosaren etorkizunarentzat oso ona da hori.

Esan dugu 24. edizioa jokatu duzuela igandean. Kontua eraman izan duzue urtez urte?

Biek batera: Ez, ez. Urtez urte joan gara izena ematen, gorputzari kasu eginez.

F.O.: Urte osoan zehar egiten dut korrika, eta egun berezi hau aprobetxatzen dut lasterketaz eta giroaz gozatzeko.

T.M.: Niretzat edizio kopuruarena ez da inoiz obsesio bat izan. Hori bai, banekien zuk edizio guztiak eginak zenituela, Fede.

F.O.: Lehengo urtera arte ez nuen inoiz pentsatu nik hori, Aitor Azkonbietak [antolatzaileetako batek] komentatu zidan arte: "Batek baino gehiagok jokatu zuenituzten edizio guztiak ziur aski...". Eskoba eramaten dutenak ere, urte guzti-guztietan atera ez badira, gertu egongo dira.

Eguraldi iragarpenek diote giro eguzkitsua egongo dela igandean, eta 17 bat gradu egingo dituela 10:30erako, krosa hasten denerako.

T.M.: Temperatura aldetik, 14-17 gradu ingurukoa gustatzen zait niri gehien; beraz, ongi. Beroarekin

pasatzen dut okerren, asko izerditzen dut-eta.

F.O.: Haizeak molestatzen dit niri gehien, euriak edo beroak baino gehiago.

Eta ibilbideari dagokionez? Lan asko ematen dizuen punturen bat daukazu identifikatuta?

F.O.: Giharrak berotuta eta luzatuta ere, kosta egiten zait gorputza martxan jartzea. Urbileko aldapan hasten naiz izerditzen normalean; hortik aurrera, ongi.

T.M.: "Perkins motorra" daukadala esaten dut nik beti: ttipi-ttapa igotzen ditut aldapatxo guztiak, poliki-poliki. Baina ibilbideak ez dauka zailtasun askorik; edonork egin dezake, entrenatuz gero. Nik, adibidez, hilabete eta erdiz prestatzen dut krosa. Horrekin aski izan dut proba bukatu ahal izateko, orain arte behintzat.

23 urte eta gero, ia-ia errotina bilakatu da zuentzat krosean aritzea. 1 zenbakidun dortsala eramango duzue aurten. Bereziagoa izango da?

F.O.: Bai, jakina. Dagoeneko zaleek asko animatzen bagaituzte, 1 zenbakidun dortsalarekin zer esanik ez! Txetxu, badaezpada ere, irribarretsu joan beharko

Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia

1

dortsala
historikoak

2008 Eulogio de la Serna
2010 Santos Uribe
2011 Nieves Civicos
2012 Eskobak taldea
2013 J. L. Juarez, "Gambers"
2014 Lontxo Esnaola
2015 DYA
2016 Jalgune
2017 Txintxarri / DV
2018 Euskaraldia
2019 F. Otaegi / T. Mertxan

dugu hasiera-hasieratik, zaleak eta ezagunak agurtzeko eta kasu egiteko.

T.M.: Bai, Fede, zalantzarik gabe! Bestela ere egingo dugu irribarre, lasterka egin bitartean etortzen zaizkigunean oroitzapenak. Berezia izango da.

Igandekoarekin, bien artean 48 kros eta ehunka kilometro... Eta geratzen zaizkizuenak!

F.O.: Beno, ikusiko dugu. Urtez urte joatea onena. 50na edizio jokatzera iritsiko ez garenez, alferrik da epe luzerako helburuak jartzea, nire ustez.

Datorren urtean 25.a egitearekin, konforme.

T.M.: Nola ezetz, Fede? Bion artean 100 egitera (barreak)! Ez, arrazoï duzu, orain arte bezala jarraitzea da asmoa, gorputzari entzunez, urtez urte, esaten duen arte nahikoa kilometro egin ditugula.

"URTEZ URTE JOAN GARA PARTE HARTZEN KROSEAN, GURE GORPUTZEI KASU EGINEZ"

Uraitz, s.l.

Igeltseritza Orokorra

- BARRUKO BERRIKUNTZAK
- TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILEAREKIN. VIPEQ F08 (EMULTSIOZ BOTATAKO ARTELAZKIA) ETA S.A.T.E. SISTEMA
- GREMIOEN KOORDINAKETA KOSTU GEHIGARRIRIK GABE
- BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA DUTXA EXTRALAUARENGATIK EGUN BAKAR BATEAN

693 059 392 / 943 566 640 • uraitz@uraitz.com • www.uraitz.com

BULEGOA: Geltoki kalea 15, LASARTE-ORIA

Berrito herrian!

MAUXA

Gizonezkoentzako arropa
Etxe eta oheko arropa

ordutegia:
10:00-13:30 eta 16:30-20:00

GELTOKI KALEA, 21 BEHEA | LASARTE-ORIA

Zorte on korrikalariei!

Gure produktuekin 12 sorta zozketatuko ditugu korrikalari guztien artean!

Patxi Larrañaga
Ana Iparraguirre
Naroa

Kale Nagusia 39 Lasarte-Oria
Tel. 943 37 26 68 - Faxa: 943 37 07 37



Makilkadaz makilkada, lasterketa antolatu arte

"Ilusioz gainezka" daude Ostadar Ipar Martxako kideak. Iazko frogaren ostean, lasterketa ofiziala jokatuko dute igandean, krosaren historian aurrenekoz. 5 urte daramatzate kirol diziplina hori herrian lantzen. 50 pertsona baino gehiagok izena eman dute probarako

Iñigo Gonzalez Sarobe

Ostadar SKTk urtero aldatzen du krosaren kamisetaren kolorea. Gorria izan zen iazkoa; aurtengoa, berriz, urdina. Elastikoari so eginez gero, berrikuntza gehiago ikus daitezke bularraldean. Hizki gehiago serigrafiatu dituzte, beste lasterketa bat gehiago jokatuko delako igandean: Ipar Martxa modalitateko lehenengo edizioa. Iazko froga "ederki" irten zela nabarmendu dute Ostadar Ipar Martxaren arduradun Rosa Ormazabalek, Junkal Perezek eta Alex Ramosek. Arrakasta horrek hauspotuta, erabaki dute izen-ematea irekitzea eta parte hartu nahi duten guztiei kros

herrikoa barrutik bizitzeko aukera ematea. "Ilusioz gainezka gaude iganderako".

50 pertsona baino gehiagok izena eman dute lasterketarako. Ez da zifra batere txarra. Izan zitekeen are hobea, Ormazabalen hitzetan: "Donostiako Katxalin frogarekin bat egingo du krosak; horrek eragingo du jende ugari proba horretan parte hartuko duela". Dena dela, "pozik" dago, astero-astero Ostadar Ipar Martxan aritzen diren herritarrek gogotsu hartu dutelako probaren prestaketa. Pasa den asteazkenean egin zuten azken entrenamendua. "Aurreko saioetan kosta zitzaigun krosetako ibilbidea San Silvestre

probakoarekin ez nahastea, baina dagoeneko neurria hartu diogu". Bost kilometro izango ditu luze ipar martxalarietako bete beharreko bideak. Geltoki kaletik abiatuko dira, gainontzeko kirolari guztiak bezala. Kale Nagusira iritsiko dira, eta ibai ondotik buelta eman gero. Helmugara iritsi baino apur bat lehenago elkartuko dira berriro korrikalarietako: Michelingo zuzengunean. "Pibote batzuk jarriko dituzte gure gunea eta lasterkariena bereizteko eta istripuak saihesteko", jakinarazi du Junkal Perezek. "Lasterketa errepidetik egin ahal izatea ederra da; asko errazten du horrek gure jarduna". Konpetitu



Ezker-eskuin: Junkal Perez, Alex Ramos eta Rosa Ormazabal. TXINTXARRI



M. BERASATEGI

DESDE 1961 ETIK
• KAFE & TEA •

Zorte on
korrikalari guztiei!





www.cafesberasategi.com

Hiru belaunaldiko esperientzia duten arotzak gara

- Altzairuak neurrira
- Era guztietako arotz-lanak
- Egurrezko lurrak eta sintetikoak
- Etxe barruko konponketak

Gure zerbitzu guztiak ikusgai:

www.iurruzola-aroztegia.com

I. Urruzola aroztegia


Animoak korrikalari guztiei!

iurruzolaaroztegia@gmail.com
 943 371 200 / 615 784 238

Oria etorbidea 4, behea. 20.160 Lasarte-Oria



egingo dute martxalari batzuek; besteen erritmoa ez da izango horren azkarra. "Gozatzea izango da haien xede nagusia".

"Lorpen handia" da krosaren egunean lasterketa propioa edukitzea Ostadar Ipar Martxako arduradunentzat. "Egun oso berezia izango da igandekoa; lasarteoriarrentzat ikaragarria da herriko lasterketan parte hartzea", adierazi du Rosa Ormazabalek. "Krosa emozioa da". Duela 5 urte murgildu zuten kirol diziplina hori herrian, eta, urtetik urtera, gero eta pertsona gehiago animatu dira makilak hartu eta ipar martxa nola egin ikastera. Astero elkartzen dira entrenatzeko, eta hilabetean behin

irteera bat egiten dute. Ikasturteko lehenengoa Valderejoko Parke Naturalera eginikoa izan da, irail bukaeran. Hainbat kilometroz kirola egin ostean, Añanako gatzagetara joan ziren arratsalde pasa. "Ikaragarri gustatu zaie plana herritarrei; datorren urtean errepikatuko dugu". Azkeneko bi urteetan, bidaiak egin dituzte Aste Santuan: iaz, Menorcara; Gironan izan dira aurten.

Alex Ramos, Espainiako Kopan

Krosaren egunaren bezperan, larunbatez, Espainiako Kopan parte hartuko du Alex Ramosek. Donostian ariko da, Miramonen. 11 kilometroko ibilbidea osatu beharko du herritarrak,

zirkuituari pare bat itzuli emanez. 16:00etan hasiko da kirol ekitaldia. Igandeko lasterketan ere parte hartuko du, baina laguntzaile modura.

Bi urte darama diziplina horretan konpetitzen Ramosek. Lana eta familia tarteko, ez dauka denbora gehiegi, baina ahal duenean gustura hartzen ditu makilak, eta lehiatu. "Kirola egitea gustuko dut". 75. Zumaia Flysch egin zuen duela hilabete batzuk, esate baterako. 350 bat kirolari federatuk parte hartu dute gisa horietako probetan aurten. Espainiako Kopaz gain, sailkapen probak eta Espainiako Txapelketa joka ditzakete ipar martxalariak, estatu osoan zehar.



Herriko eta Gironako ipar martxalariak, Aste Santuko irteeran. CRISTINA B. FERRE

Lasarte-Oriara iristeko "irrikitan"

Nordic Walking Girona taldeko 25 kide etorriko dira asteburuan herrira, krosetan parte hartzera eta Ostadar Ipar Martxako kideekin egun batzuk pasatzera. "25 gatoz, pertsona gehiagorentzat tokia ez dagoelako ostatuan", aipatu du Cristina Borrás Ferrek, talde horretako arduradunak. "Irrikitan gaude Lasarte-Oria eta inguruak ezagutzeko".

Borrás duela lau pabost urte ezagutu zuen Rosa Ormazabal, Ostadar Ipar Martxaren sortzaileetako bat. Harreman gero eta estuagoa egin dute. Aste Santuan Gironara joan ziren hainbat herritar, egun batzuk pasatzera eta Kataluniako hiri hori ezagutzera. "Sinergia ikusgarria" sortu da bi taldeen artean. "Bisita guk egingo diegu orain. Ea zer moduz doan: espero dugu 2020an bueltatzea". Gironako talde hori 2012an sortu zen. Astero-astero 400 bat pertsona aritzen dira makilekin. "Gozatzea eta tokiak ezagutzera dira helburu nagusiak".



Fernandez
ehunak *Krosarekin bat*

Nahi edo behar duzun huraxe aurkituko duzu gurean!

Kale Nagusia 2 - Tel. 943 36 16 07 - LASARTE-ORIA

MZUBI
LASARTE-ORIA *muebleszubi@hotmail.com*

Geltoki Kalea 21 · Tel. 943 36 24 67

Lasarte-Oria Bai! Krosarekin bat

LARRE
JATETXEA

20€ Asteburuko menua

21€ Menu begetarianoa

20€ Babarrun-jana
egin erreserba:

943.361012 - 679.930895
Larrekoetxe bidea, 10
LASARTE-ORIA

TABERNA
Buenetxea
KAFETEGIA

Lasarte-Oria Bai! Krosarekin bat

Pablo Mutiozabal 2, Lasarte-Oria Tel. 943 36 95 08

• **PRIMERAKO GOSARIAK:**
Kafea, zukuak, tostadak, opilak
• **TXOKOLATEA TXURROEKIN**
• **SALDA • RAZIOAK • PINTXOAK**

Eta astebukaeran ere:
• **OGITARTEKOAK**
• **HANBURGESAK**
• **SANDWICH-AK**

ZATOZ GURE GOSARI ETA PINTXOAK DASTATZERA!!



Guztia prest Lasarte-Oria Bai! lasterketarako

24. Lasarte-Oria Bai! krosetako korrikalari eta patinatzaileek eguraldi ona izango dute lagun lasterketan. 600 pertsona baino gehiago izango dira Geltoki kaleko irteeran. Trofeoak beharrezan Aterpeko bonoak jasoko dituzte irabazleek. Udalaren babesa jaso du probak eta hurrengo urtean hitzarmena berrituko dute

Txintxarri

Igandeko lehen orduak lainotuak izango direla aurreikusitako arren, eguzkiak bere presentzia baieztatu du Lasarte-Oria Bai! krosetan. Azken egun hauetako euri eta hotzak alde batera utzi eta temperatura epele egin beharko diete aurre lasterkarietako. Lasterketa nagusia 10:30ean hasiko da; bi minutu lehenago gupilak martxan jarriko dituzte patinatzaileek.

Ibilbide luzeko lasterketa, 24. edizioa da, ohiko bihurtu da Lasarte-Oriako herritarrentzat, baita inguruko korrikalariarentzat ere. Horregatik, 500 bat korrikalari izena eman dute, asteazken arratsaldeko lehen orduan Ostadar SKTk eskainitako datuen arabera. Patinatzaileak, ordea, ez dira hainbeste, 21.

Faboritoei dagokienez, Ostadar SKTko kideek ez digute izenik eskaini ahal izan. "Askok azken momentuan izena ematen dute eta ezin da jakin".

Hala ere, azken orduetan ere izan daiteke lasterkari edo roller bat baino gehiago gehitzea. Gaur Ostadar SKTko webgune eta *sailkapenak.com* orrialdetik izena emateko azken eguna da.

Fisikoki egin nahi duenak gaur Manuel Lekuona Kultur Etxera joan behar du, 17:00etatik 20:00etara. Bihar, berriz, Michelingo frontoian izango dira Ostadar SKTko lagunak 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:30era. Lasterketa egunean 10:00ak arte egongo dira



Euria izan zen iaz protagonistetako bat. Aurten eguzkia lagun izango dute korrikalarietako. TXINTXARRI

dortsalak banatzen. Egun horretan izena emanez gero, 20 euro ordaindu beharko dituzte kirolarietako. Bestela, 12-Ostadar SKTko bazkideek, berriz, 8-.

Udalaren laguntza


Bestalde, lehenengo ostiralean, urriaren 18an, Lasarte-Oriako udalak eta Ostadar SKTko hitzarmenaren berri eman zuten Sozioekonomiako zinegotzi Nuria Fernandezek eta Ostadar SKTko Aitor Azkonobietak.

Udalak 2.000 euro eman dizkio Ostadarri krosa egin ahal izateko. Lasarte-Oriako udal gobernuak kideak adierazi duenez, elkarlan horren xede dira kirol proba bat antolatzea eta *Tratu on bat Lasarte*

Oria marka sustatzea. Horregatik, lelo hori dute 3.000 poltsa banatuko dituzte lasterketaren egunean, iaz bezala.

Agerraldian, Ostadarrek hasieratik herriko saltokiak, taberna edo jatetxeak egun horretan sustatzeko izaera duela nabarmendu zuen Azkonobietak. Hori dela eta, aurten Aterpea Merkataritza Elkartearekin erdietsi dute akordioa azpimarratu zuen. "Irabazleei, kopak beharrez, bonoak emango dizkiegu, Aterpeko komertzioetan erosketak egiteko. Trofeoetan gastatzen gure dirua inbertitu egingo dugu herriko komertzioan".

Halaber, 2017-2019 hirurtekorako hitzarmena datorren urtean berrituko dutela berretsi zuen Fernandezek.



Laguntzaileak: DYA, Danok Kide, AEK, Jalgu...

aldizkariak
ESKU-ORRIAK
liburuak
katalogoak
AGENDAK
kartelak
EGUTEGIAK
papeleria
koadernoak
LOGOTIPOAK

INPRENTA
offset eta digitala

DISEINU
GRAFIKOA

DISEINU
EDITORIALA

antza

KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

Zirkuitu Ibilbidea 2 · Pab. 1-2
20160 LASARTE-ORIA

Tel. 943 370 738 · info@antza.eus
www.antza.eus





Legend:

- Tren Geltokia
- Kilometroak
- Informazioa
- Izen ematea
- Aparkalekua
- Konsigna
- Dutzak

Legend:

- Krosa + Roller ibilbidea
- Ipar martxa ibilbidea

Antolatzailea:
Ostadar Saiarre Kirol Taldea

OSTADAR S.R.T.
www.ostadarskt.eus

Lasarte-Orian Guk Kirola euskaraz

LASARTE-ORIA TRATU ON BAT UN BUEN TRATO

LASARTE-ORIA UDALA - AYUNTAMIENTO

Lasarte-Oria, Kukuruk antzerki eta dantza eskola, Zubietako Herri Batzarra, Ttakun, Sasoeta-Zumaburu ikastetxea, Landaberri ikastola.

BIKAIN



Lasarte-Oria Bai!
Zorte on Korrikalari guztiei!
Juan XXIII plaza, Lasarte-Oria



Helduen korrika saioaren ostean, txikien lasterketa

Herriko gaztetxoek XIX. Korrika festak hartuko ditu Lasarte-Oriako kaleak, nagusien lehiaketa amaituta. Adinka banatuta parte hartuko dute, eta bakoitzak dagokion distantzia egin beharko du helmugaratzeko. Saria jasoko dute amaieran

Txintxarri

Igandean herriko gaztetxoak ere krosetako protagonista izango dira. Helduen krosa amaitu eta gero, Korrika Festan lasterka egiteko aukera izango dute txikiak. XIX. Korrika Festa izango da aurtengoa, eta adinaren arabera, distantzia ezberdinak osatu beharko dituzte partehartzaileek.

Eguerdiko 12:15ean hasiko dira. Infantilak izango dira Korrika Festan parte hartzen lehenak (2006/2007an jaiotakoak), eta 1.200 metrotako ibilbidea osatu beharko dute. Horiek amaitu ostean, 12:25ean, kadeteen txanda izango da (2004/2005an


jaiotakoak). Hauek ere distantzia bereko lasterketa egin beharko dute helmugaratzeko.

Ondoren, 2014. urtean jaiotakoek egingo dute korri. 12:35ean hasiko dute 100 metrotako korrikaldia. Aurrebenjaminak (2012/2013an jaiotakoak) arituko dira gero. Hauek 12:45ean hasiko dira, eta 150 metro egingo dituzte lasterka. Horiek amaitzean, benjaminen (2010/2011an jaiotakoak) txanda izango da, eta hauek ia kilometro erdiko lasterketa egin beharko dute 12:55ean: 400 metrotako. Alebinak izango dira Korrika Festan parte hartzen azkenak. 13:05ean hasi, eta 800 metro korrika eginda amaituko da gaztetxoek lehiaketa.

Saio guztiak amaituta, sariak ere jasoko dituzte, Jalgune Elkarteko lagunaren eskutik. Aurten, alebinek eta benjaminen jasoko dituzte dominak, eta gainerako parte hartzaileentzat, janaria banatuko da.

Izen ematea

Ostadarrek jakinarazi duenez, 800 izen-ematek gora jaso dituzte gaur arte. Dena den, igandera bitarte izango da inskripzioa egiteko aukera. Bihar, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:30era izango da izen emateko aukera, Michelin. Igandean, berriz, helduen ordutegi berean; 09:00etatik 10:00etara.



Sei kategoria ezberdinetan banatuta parte hartuko dute gaztetxoek. BIKAIN

ELECTRICIDAD ARREGUI

Lasarte-Oria Bai! · Estilo ezberdinetako argiak
Kalitatezko produktuak, prezio ezin hobean

Zure etxerako argi aproposenak ditugu

Kale Nagusia 39 LASARTE-ORIA
Tel. 943 36 10 80 eta 600 857 586

www.electricidadarregui.com

URTINEA

LORADENDA · EZKONTZA ETA EKITALDIAK · DEKORAZIOA

Santu Guztien egunerako mota guztietako loreak dauzkagu

Urdaiaga auzoa, 11
USURBIL
943 917 562

ALBA

ARROPA DENDA

Lasarte-Oria Bai!
Animak guztiak!

MADE IN LU ese 0 ese NAFNAP

Nagusia 65 behea · Lasarte-Oria · Tel.:943 574450



"Lasarteoriatarrek krosa bere egin dute"

AMAIA ANDRES OSTADAR ATLETISMO SAILEKO ARDURADUNA

Ostadarrek Lasarte-Oria Bai! krosa prestatzeko zerbitzua eskaini du aurrenekoz. Kros Txikian antolakuntza lanetan egon beharko du, baina agian krosa egitera animatzen da

Nerea Eizagirre

Amaia Andres (Donostia, 1966) ibilbide handiko kirolari eta entrenatzailea da. Lasarte-Oriako atletismoaren harrobia landu du hemezortzi urtez LOKE elkartearen bere senar Oskar Goikoetxearekin batera. Aurten Ostadar SKTra egin dute salto. "Oso pozik" daude elkarteak egindako harrerarekin eta erronka berriak dituzte buruan. Lasarte-Oria Bai! krosa prestatzeko entrenamenduak, esate baterako.

Nola otu zitzaizuen lasterketan prestatzeko zerbitzua eskaintzea?

Guk herriarentzat lan egiten dugula ulertzen dugu. Eskolako mailekin edo federatuekin lan

egitea garrantzitsua da, baina bada beste korrikalari multzo bat herrian herri lasterketak egiten dituen. Horren barruan, emakumeen kasuan batez ere, askotan ez dakite nola egin lasterketa bat prestatzeko edo talde bat osatzea gustatuko litzaike korrika egin ahal izateko.

Horregatik logistika eskaintzea bururatu zitzaigun. Guk entrenamenduak prestatu eta bere erreferentzia puntu izatea. Fisikoki hona etorri ahal ezin duenak, online egitea ere posible da. Kezkak argitzen saiatuko gara, elikadura edo entrenamenduei buruzkoa. Beste

herrietan egiten da dagoeneko eta harrera ona du.

Baina entrenatzeaz gain, zapatilak jantzi berri dituzu 15 km. Klasikako 10 kilometroko proban...

Bai, horrela da. Emakumeen parte hartzea bultzatzeko asmoz eman nuen izena. Emakumeek korrika egitea gustuko dute, baina lehiaketa edo lasterketa orduan, ez dute hain besteko lehiakortasunik.

Nire asmoa, lehiaketa bat erlojurik gabe edo entrenamendu bezala ere egin daitekeela erakustea zen. Beraz, etsenpluaren bidez predikatu nahi nuen.

Igande honetan parte hartuko al duzu krosetan?

Ba gogoz nago, ilusioa egingo lidake baina guztiz osatu behar naiz lehenengo. Klasikaren ostean, ezetz esango nizuke, baina gaur... Agian kilometro batzuk egiten ditut edo guztia, ez dakit... Zapatilak bero-bero ditut eta gogoz nago. Hala ere, antolakuntza lanak ere egin behar ditugu: gazteei eta haurrei lagundu behar diegu.

Herritarrek animatzen dituzu parte hartzera?

Bai, noski. Herrian oso errotuta dagoen lasterketa da. Lasarte-Oriako ekitaldi handienetarikoa dela esan daiteke eta herriak bere egin du. Oso pozik nago. Orain arte gonbidatu gisa ikusi dugu eta orain horren parte izango gara. Esperientzia berria izango da.

Zein aholku emango zenieke krosetan parte hartzaileei?

Lasterketa egunean, ez esperimenturik egin.

Egunero gosaltzen duzuna jan. Hori bai,

proteina duen zerbitu eta karbono hidrato azkarrak jatea komeni da.

Aurreko eguneko afaria ere garrantzitsua da. Pasta afalduz gero, muskuluetan glukogeno-erreserbak ziurtatzen dituzu.

Ongi hidratatuta egin behar da korrika. Ez da bakarrik egunean bertan ura edan behar, egun batzuk lehenago hastea komeni da. Ongi deskantsatu behar da.

Eta betikoa, zapatilak edo edozein arropa estreinakoz ez jartzea.

Ongi dator ere aurretik ibilbidea ezagutzea.

Korrika zoazenean zenbat geratzen den kontuan izan eta indarrak kontrolatzeko.



Irakurri elkarrizketa osoa txintxarri.eus webgunean

Tiburtzio

Artizar

Pintxoak • Razioak • Ogitarkeak...

Lasarte-Oria Bai! krosarekin bai!

Kale Nagusia 12, behe atzealdea (Okendo plaza) • LASARTE-ORIA

serigrafiaiosu.com

Santxo

Bar Restaurante

Krosa ondoren zatoz indarberritzera!

- pintxoak • errazioak • ogitarkeak
- plater konbinatuak • morunoak

Oriamendi plaza 1 • Tel.: 943 37 20 75

Beherapenak TOP 21 Udazkena

Bideo Lagunak TIEN 21

Etxekotresna elektrikoetan adituak

- Finantziarioa neurria
- Garraio zerbitzua
- Erabilitako gailuen jasotzea
- Aholkularitza espezializatua
- Preziorik onena

Donostia etorbidea 2 • Lasarte-Oria | Tel: 943 37 31 34 | www.bideolagunak.com



Galdu ezinezko hitzordua herritarrentzat

- 1.- Zer gustatzen zaizu gehien Lasarte-Oria Bai! krosetik?
- 2.- Zenbatgarren aldiz parte hartuko duzu aurten?
- 3.- Helbururik jartzen al diozu zure buruari?
- 4.- Urte osoan aritzen zara korrika, patinetan edo Ipar Martxan?



Imanol Galarraga
Lasterkaria

- 1.- Txikitatik bizitzen dugu krosa herrian. Giro oso ona sortzen da; jende ezagun ugari biltzen da, denek animatzen zaituzte, eta Hipodromoko zatia eta helmugakoa oso hunkigarriak izaten dira.
- 2.- Krosean parte hartzen dudana laugarren urtea izango da aurtengoa.
- 3.- Nik beti zehazten ditut helburuak; denborak izaten ditut erreferentziatzat. Aurtengorako ere baditut helburu batzuk, baina ez dakit horiek betetzea lortuko dudana.
- 4.- Urte guztian aritzen naiz lasterka eta bizikletan. Mendiko lasterketak egiten ditut. Aurten apirilean hasi nintzen entrenatzen.



Izaskun Salazar
Lasterkaria

- 1.- Giroa. Parte hartzaile kopurua handia biltzen du lasterketak eta polita izaten da. Ibilbidea ere oso polita da, eta jendeak etengabe animatzen du.
- 2.- Bederatziagarren aldia izango da aurtengoa.
- 3.- Gozatzea izaten da nire helburua. Ez diot denborarik finkatzen nire buruari, ezta bestelako helbururik ere. Ez naiz lehiatzera ateratzen.
- 4.- Igeriketan aritzen naiz gehienbat, baina aritzen naiz lasterka ere. Aurten, ordea, lesio bat tarteko, ezin izan dut. Zalantza izan dut aurtengo krosean parte hartu edo ez, baina nahiz eta erritmo lasaigoan egin behar izan, parte hartzea erabaki dut.



Maitane Rebe
Lasterkaria

- 1.- Herritar guztiek parte hartzen dutela da gehien gustatzen zaidana. Batzuek lasterketan parte hartzen dute, eta besteak ikustera eta animatzera etortzen dira. Txikitatik bizi dugun hitzordua da.
- 2.- Umetan parte hartu nitzakeen edizio guztietan aritu nintzen, eta helduenean, aurtengoa bigarrena izango da. Aitak animatu minduen lehen aldian parte hartzera, berarengandik datorkit zaletasuna.
- 3.- Helburua ondo pasatzea da, helmugara disfrutatu ostean iristea.
- 4.- Ez, kirola betidanik egiten dut, eta dantza ere asko, baina korrika ez naiz aritzen. Krosa prestatzeko bi hilabete lehenago prestatzen naiz.



Igor Otaegi
Patinatzailea

- 1.- Krosetik gehien gustatzen zaidana sortzen den giroa da. Jendeak dezente animatzen du, nahiz eta guri, patinatzaileoi ez hainbeste. Nahiko goiz hasten da gure proba, eta gurea amaitzear dagoenean gerturatzeko dira ikusleak, korrikalariak animatzera. Korrika Festa ere oso polita da.
- 2.- Kontua galdu dut dagoeneko. Korrika askotan, eta patinetan, edizio guztietan.
- 3.- Ez diot aparteko helbururik jartzen nire buruari. Azken egunotako euriak ikusita, ez erortzea izan daiteke iganderako helburu bat.
- 4.- Urte osoan aritzen naiz patinetan. Tarteka probetan ere parte hartzen dut. Korrika ere aritzen naiz, hortxe dator Behobia-Donostia.



Manoli Zumeta
Ipar Martxa

- 1.- Sortzen den giroa da gehien gustatzen zaidana. Ikustera etortzen direnek, ezagutu edo ez, asko animatzen zaituzte, eta hori ederra da. Ez gara inongo momentutan bakarrik sentitzen, eta guk, gure artean ere elkarri animo asko ematen dizkiogu.
- 2.- Bigarren aldia izango da aurtengoa, edo ofizialki lehenengoa.
- 3.- Giroaz eta probaz disfrutatzen ateratzen naiz. Ez diot helburu zehatzik jartzen nire buruari, ahalik eta ondoen egitea besterik ez.
- 4.- Bai, ahal dudana neurrian, urte guztian zehar parte hartzen dut Ipar Martxako irteeretan eta saioetan. Bi urtez irteera ederrak egin ditugu; Menorcan eta Gironan izan gara.



Xabier Perez
Ipar Martxa

- 1.- Lehiaketan parte hartzea da gehien gustatzen zaidana, lehiakortasun puntu hori. Giroa ere oso ona izaten da.
- 2.- Ipar martxarekin parte hartu izan dut lehengo urtetik, aurten bigarren urtea izango da eta iragan urtekoa behintzat, oso esperientzia polita izan zen.
- 3.- Ez diot helburu zehatzik jartzen nire buruari. Lehiaketa bat den neurrian, lehiakortasuna badago, baina gozatzea ere oso garrantzitsua da. Saillapen postuak ez du garrantzi handiegirik niretzat.
- 4.- Urte osoan aritzen naiz Ipar Martxan, baina San Silvestreaz gaindi, ez dut probetan parte hartzen.



LUIS CAR

autobusak



- Espainiako eta nazioarteko garraio zerbitzuak
- Enpresentzako, ikastetxeentzako... zerbitzuak
- 15 plazako mikrobusak
- 55 plazako autobusak
- Elbarrientzat behar bezala prestatutako autobusak

Uzturre plaza 1, LASARTE-ORIA • Tel./Faxa: 943 36 63 16 • Mugikorra: 629 461 897 • luiscarbus62@hotmail.com

GAU BELTZA

URRIAK 31
ZABALETA AUZOAN

18.30- AURPEGI MARGOTZEA
(ETORRI ZURE MOZORROAREKIN)

19.00- BELDURREZKO
IBILBIDEA

JARRAIAN: pintxopotea,
beldurren erretzea,
gaztainerreak, musika...



Euskal giroz blaitutako eguna

Azarotik urrira ekarri dute aurten Euskal Jaia, eta larunbat osoan eguraldiak kontrakoa iradoki arren, Okendo plazan egin ahal izan dituzte eguneko ekimen guztiak. Baserritar jantziak soinean, parte hartzeko hamaika aukera izan dituzte lasarteoriarrek

Maitane Aldanondo

Ekimenez eta euskal giroz beteriko eguna izan zen larunbata, lehen ordutik, azkenekora. Zeruari begira, euri mehatxua agerikoa bazen ere, Okendo plazan mantendu zuten jaia antolatzaileek. Baita asmatu ere. Baserritarrez jantzitako herritarrek erakutsi zuten jaiaz gain, horrela ere blaitzeko prest zeudela.

Txistu eta danbolin doinuak esnatu zituen lasarteoriarren jai gogoak. Sagardotegi plazatik irtenda erdiguneko kaleetan barrena ibili ziren, kantu dantza jirarekin bat egin zuten arte. Kanta ezagunak abestu eta dantzatu ibili zen talde zabala kaleetan barrena.

Plazan, ordurako, bazen mugimendua. Bertako eta eskuz egindako produktuen azokan begira eta zer erosi zebiltzan batzuk, erdian patata tortilla lehiaketako hiru bikote partaideak patata zuritzen, tipula frijitzen edo arrautzak irabiatzen ari ziren bitartean. Bakoitzak berea onena zela uste bazuen ere, umoretsu eta lehiarik gabe aritu ziren. Epailen erabakia ezagutzean ere ez zuten irribarra

galdu; zabalena, amantala eta sagardo botilak eskuratu zituztenena bazen ere.

Tortillak prest zeudenean, bizkotxo lehiaketan parte hartu zuten gaztetxoak apainketa lanetan hasi ziren. Batzuek, erabat estali zuten ekarritako bizkotxoa horrenbeste txokolate, kolorante, azukre eta bestelako litxarrerriak jarrita. Epailen lanetan aritu zirenen moduan, haur askok eskuak eta ahoa ere koloreztatu zituzten. Irabazi ala ez, bizkotxoa nahi adina jateko aukera izan zuten partaideek eta zati bat hartzea izan zutenek.

Telleriak, ezin

Jaki horiei jaisten laguntzeko, Buenabista, Sollaenea, Telleria eta Zubillaga baserrietako sagardo dastaketa egin zuten. Edariari oso lotuta dagoen txalapartak itxi zuten goiza, bingoa amaitzean, herri bazkariaren txanda zela iragarritz.

Paella eta profiterolekin gosea berdinduta, arratsaldeko egitarauari heldu zioten. Haurrak sokatiran, lokotx bilketan edota pilotan aritu ziren 17:00ak arteko tartean. Orduan, Beñat Telleria

eta Udane Ostolaza harri-jasotzaileek erakustaldia egin baitzuten. Lasarteoriarrek 100, 125 eta 150 kiloko harriak altxatu zituen, udaletxeko atarian dagoen Okerra harria, aldiz, ezin izan zuten sorbalda gainean jarri. 142 kilo baditu ere ez du helduleku errazik, eta saiatuta ere, ez zuten asmatu. Hiru ahaleginetan oso gertu egon zen, baina ezin azken pausoa egin. Edonola, txalo artean eskertu zioten ahalegina itxitura inguruan pilotutakoek. 14 urteko oriotar gazteak, berriz, 65, 42 eta 35 kiloko zilindro, kubo eta bolekin egin zituen altxaldiak, txukun eta azkar. Ikusleak asebeste zituen erakustaldiak.

Begira geldi egon ondoren, odola berriro mugitzeko dantza baino bide hoberik ez da. Getariako Soinuz Blai taldeak horretarako bide eman zuen. Kanta ezagunetz osatutako erromeriarekin bete zuten ilundu arteko arratsaldea, nekatu arte dantza egin zutenen gozamenerako. Baina zereginik bazen oraindik. Bertsolariak tabernaz taberna ibili ziren herri afaria arte. Orduan bai, euriak ere ezin izan zuten gehiago eutsi eta festara batu zen.



Prestatutako bizkotxoak plazan apaindu zituzten haurrek. Batzuek, gehiegi. TXINTXARRI



Ahaleginduta ere ez zuten Beñat Telleriak harri kamutsa altxatzerik izan. TXINTXARRI



Erromerian nekatu edo oinetakoak urratu arte dantza egiteko aukera izan zen. TXINTXARRI



Kantu dantza jira txikiak jendetza bildu zuen herrian barrena egindako ibilbidean. TXINTXARRI



Sari banaketaren ondoren ere ez zuten umore ona galdu patata tortilla lehiaketako partaideek. TXINTXARRI

Zabaleta Auzolan, hitzarmenaren zain

Auzoko lokal berria erabiltzen hasi nahi du Zabaleta Auzolanek; akordioa sinatu behar dute udalarekin horretarako. Bilera eskatu diote alkateari urri hasieran, baina ez dute erantzunik jaso oraindik. "Bizilagun gero eta gehiago gara; beharrak areagotzen doaz"

Txintxarri

"Isiltasuna haustea" erabaki du Zabaleta Auzolan elkarteak; "ezinegona argitara" ateratzea. Auzoko lokal berria lehenbailehen hasi nahi du erabiltzen. Obrak bukatuta daude, baina udalarekin hitzarmena sinatzea falta da. Bilera eskatu diote alkateari urri hasieran; ez dute erantzunik jaso oraindik. "Bizilagun gehiago gara egunetik egunera; areagotzen doaz komunitatearen beharrak".

"Duela 20 urte baino gehiago" eskatu zion bere jarduerak burutzeko lokal bat udalari Zabaleta Auzolan elkarteak. 2018ko abenduan hasi zituen lanak udalak, eta aurtengo ekainean bukatu. Prest dago gunea, baina auzotarrek ezin dute erabili, hitzarmena ez dutelako sinatu. "Otsailaren 28an bildu ginen alkatearekin eta adierazi genion akordioa ahalik eta azkarren prestatzeko beharra; gaur egun, oraindik ez daukagu zirriborroa ere", azaldu dute auzotarrek. "Duela bi aste bilera eskatu genion alkateari; ez dugu erantzunik jaso".

Makina bat auzotar gerturatu dira prentsaurrekora. "Gero eta pertsona gehiago bizi gara Zabaletan; komunitatearen beharrak areagotuz doaz". Hamar minutuz eduki dute aukera



Auzotar ugari gerturatu dira lokalaren egoerari buruzko prentsaurrekora. TXINTXARRI

lokalera sartzeko eta lanak nola geratu diren ikusteko.

Bidea, "oztopoz bete"

2017ko maiatzean ikusi zuten auzotarrek "ametsa errealtate bihurtzeko zirrikitu bat". Basotxo plaza eta inguruko eraikinak egin zituenean udalak, kontratu bat sinatu zuen Urkilla SL enpresarekin, Zabaleta-Berriko a.3.1/6 eta a.3.1/7 partzeletan 64 etxebizitza, garajeak eta trastelekuak egiteko. Lokalaren egokitze-lanak ere hor sartu zituen. Etxebizitza horiek egiteko lizentzia 2017ko abenduaren 28an eman zion udalak enpresari.

Kontratu horrek zioena aintzat hartuta, lokalak lau hilabetez behar zuen egokitua, baina aurtengo ekainera arte luzatu da kontua. "Bidea erraza izango zela zirudien, baina oztopoz beterikoa izan da; behin eta berriro gogorarazi behar izan diogu udalari atzerapen hori".

Lokala prest dagoela baina erabili ezin dutela ikusita, "urrats bat" egitea erabaki du Zabaleta Auzolanek, eta prentsaurrekoa antolatzea, herritarrei egoeraren berri emateko eta udalari "egoera konpontzea" galdegiteko. "Uler gaitzala eskatzen diogu, eta prozedura azkartu dezala".

Erraustegiaren kutsadura ikertzen laguntzeko, mahaia

Aire Garbia plataformak iragarri du mahaia jarriko duela igande honetan, Sagardotegi plazan, 10:00etatik 12:00etara. Dirua bilduko dute, Errausketaren Aurkako Mugimenduak martxan jarri duen *crowdfunding* kanpainari laguntzeko. 10.000 eurotik gora bildu ditu orain arte erakundeak.

ToxicoWatch fundazioak eta Euskal Herriko enpresa batek lagin ugari hartu dituzte berriki Zubietako erraustegiaren inguruan: arrautzak, hostoak, lurra... Zubietako Lantzen elkarteak sustatu du. Erraustegia lanean hasiko balitz, kutsadura neurtzeko datuak bildu nahi ditu, urtero-urtero konparatzeko.



ONCE EUSKADI

Urrezko Kriskitina, Ostadar Inklusioarentzat

XVIII. Kriskitin lasterketak, kirol inklusiboaren aldeko lasterketa ez lehiakorrek, ehunka pertsona bildu zituen Donostiako Kursaal inguruan. Egun berezia zen Ostadar Inklusioa taldearentzat. Kirol inklusiboaren alde egin duten lana sarituko zuen ONCEk. Lasterketaren ostean, Amaia Casado eta Jurgi Olasagastik taldeko ordezkariak Urrezko Kriskitin saria jaso zuten saria Rafael Ledesma ONCEko Euskadiko delegaritzako lehendakariaren eskutik.

PSE-EE: "Zaborraren gaikako bilketa %12 igo da lau urtean"

Lasarte-Oriako PSE-EE alderdiak azaldu du duela aste gutxi abiatu duen parte-hartze prozesuak ez daukala zerikusirik birziklapen tasarekin, "zaborra biltzeko moduarekin baizik". EH Bildu alderdiak egindako kritikei erantzun die ohar bidez. Koalizio abertzaleak, besteak beste, salatu zuen Gipuzkoako bigarren tasa baxuena dela Lasarte-Oriakoa.

Alderdi idazkari Inaki Mugicak nabarmendu du %12,43 igo dela gaikako bilketa azken lau urteetan. Iazko portzentajea %46,63koa izan zen. Lasarte-Oria "norabide onean" doala uste du idazkariak; herritar gehiago erakarri nahi dituzte sozialistek edukiontzia marroia erabiltzera.

Bi domina judoko Gipuzkoako senior txapelketan

Lehenengo asteko arantzatxoa kendu dute LOKEko judoek Gipuzkoako Txapelketan. Taldeko bi kide podiumean izan dira eta horietako bat, gainera, maila gorenera igo da, Asier Sagasti. Almi Camposek, aldiz, 78 kilo azpiko mailako brontzezko domina eskuratu zuen. Unai Guisado gazteak, berriz, hirugarren postua lortu zuen infantil mailako Villares de la Reinako nazioarteko txapelketan.

Ikastaroak, txapelketak eta kontzertuak, gaur gauean

Hirugarren Gazte Gaua antolatu du udalak, gaurko. Arratsaldetik aurrera izango dira ekintzak, gauera arte

Txintxarri

Hirugarren urtez antolatu du Lasarte-Oriako Udalak Gazte Gaua. Gaur, urriaren 25a, izango da, eta hainbat ekitalditan parte hartzeko aukera izango dute 12 eta 30 urte arteko gazteak.

Arratsaldeko 16:00etan hasiko da egitasmoa. Ordu horretan, futbolin eta ping-pong txapelketa izango da, Gaztelekuan. Txapelketako garaileentzat saria ere prest du udalak; herriko ihes-gelarako sarrerak. Ordubete

beranduago (17:00etan), leku berean, Henna, Body painting, zumba eta parkour ikastaroetan parte hartzeko aukera izango dute gazteak.

Iluntzean, Bocabeats taldeak emanaldia eskainiko du. 19:00etan hasiko da, Gaztelekuan, eta ahoarekin egindako soinu eta eritmoekin zein umorearekin gozaraziko dituzte bertaratzen diren ikusentzuleak. San Pedro Jaietan ere ikuskizuna eskaini zuten, eta bertan harrera "oso ona"

izan zutela gogorarazi du Txus Alonso gazteria zinegotziak.

Hori amaituta, Kulto Kultibo taldea izango da. Irunetik etorriko dira, eta hip-hop, reggae eta rap estiloko musika emanaldia eskainiko dute, Okendo plazan. Festari amaiera emateko, DJa izango da. 23:00etan DJ Markelin arituko da herriko plazan.

Guztira 8.800 euroko aurrekontua bideratu du udalak, hirugarren Gazte Gaua antolatzeko, eta dei egiten diete 12 eta 30 urte arteko gazteei ekitaldian parte hartzera.



Gazte Gauaren aurkezpena. TXINTXARRI

ZORION AGURRAK



Noa
Zorionak maitia 3 urte egin dituzu! Muxu bat aitatxo eta amatxoren partetik!



Siena
Zorionak, preioxia! Super ondo pasa zure urtebetetzean! Asko maite zaitugu! Ama, aita eta Ekai.



Nora
ZORIONAK NORA! 18 urteeeeeee!!!! Ze handia egin zaigun gure txikitina! Oso ondo ospatu ditzazula!!!



Ekhi
Zorionak bihurri zure 5. urtebetetzean. Asko maite zaitugu. Txokolatzeko 5 muxu familiaren partetik!!!

AZOKA TXIKIA

LANA

ESKAINITZA

Pertsona baten bila gabiltza, etxeko lanak eta afaria prestatzeko, astelenehenetik ostiralera, 18:00etatik 21:00etara. 688 667 982.

ESKARIA

Haurrak zaindako nituzke, ikastolara sartu bitartean. 630 682 716.

Pertsona eskaintzen da adineko pertsonak

zaintzeko. Interna edo asteburuetan. 603 296 104.

Pertsona eskaintzen da haurrak zaindu edo pertsona adinduekin egoteko. 638 550 178.

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna edo externa bezala. 663 488 438.

Pertsona eskaintzen da adineko pertsonak

zaintzeko. Orduka, jaiegunetan, zein asteburuetan. Ospitalean gauak ere egiteko prest. 606 661 048.

SALEROSKETA

SALDU

HYMER Exsis SG autokarabana ttikia saltzen dut. Lau plaza bidaiatzeko eta lo egiteko. Zerbitzu guztiekin hornitua. 656 760 109.

JAIOTAKOAK

Danel Alonso Iparragirre. Urriaren 20an.
Amets San Sebastian Olano. Urriaren 14an.

HILDAKOAK

Martin Negrodo Gonzalo. Urriaren 17an.
Nemesio Sanchez Martin. Urriaren 10ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 25 DE MIGUEL

Larunbata, 26 ORUE

Igandea, 27 ORUE

Astelehena, 28 LASA

Asteartea, 29 GIL

Asteazkena, 30 ACHA-ORBEA

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00

ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52

ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49

DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51

LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74

GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29

URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67

GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Castilla-Larburu: Urbietea kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.

Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629

EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184

KIROLDEGIA: 943 376 182

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9

43 376 181

GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179

KIUB: 943 361 605

UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621

MUNTTERI AEK: 607 625 233

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960

DYA: 943 464 622

GURUTZE GORRIA: 943 363 953

UDALTZAINAK: 943 362 442


ERTZAINAK: 943 538 840

SOS DEIAK: 112

OHARRAK

ORDU ALDAKETA

Neguko ordutegia estreinatuko dugu igandean: goizeko hirurretan, ordu biak izango dira.



Euskal Jaiei eskertza

Euskal Jaiko lan taldeak eskerrak eman nahi dizkie laguntzaileei, egitaraua osatzen lagundu duten taldeei eta azokan, zein lehiaketetan parte hartu zuten guztiei: "Ezinbestekoa izan da, zuen laguntza, eta horregatik, eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu".

Kinto afaria

1963ko kintoen afarirako deialdia. Afaria azaroaren 23an izango da, larunbata. Izena emateko azken eguna, berriz, azaroaren 17a, igandea. Afariak 40 euro balio ditu. Kutzako zenbakia: ES83 2095 5096 9091 1930 9352.

Elkarbiziren hitzaldia

Elkarbizik *Euskal kultura adierazpenak baketzearen aurrean* hitzaldia antolatuko du. Hizlariak Eugenio Ibarzabal eta Inazio Mujika Iraola idazleak izango dira. Ibarzabalek *Garaiz gabiltz* 1980ko agiria egiten parte-hartu zuen; Mujikak, berriz, 2000 urtean argitara eman zen *Isiltasuna ez da aterpe* adierazpenaren sinatzaile izan zen.

Hitzordua urriaren 30ean izango da, Astigarragako Kultur etxeko areto nagusian, 19:00etatik aurrera. Parte hartzea mugatua da eta ganboiturri@gmail.com helbide elektronikoan izena eman behar da. Inskripzioa egiteko azken eguna, urriaren 28a, astelehena da.

Odol ateratzea

Hilabeteko azken astelehenean, urriaren 28an, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, 17:30etik 20:30era. Anima zaitzte, odola ordezkazezina da eta odol falta dago!

txintxarri

Etxe ondoan, kalean, auzoan... gertutasunez eta euskaraz

Argazkia galeriak, sailkapena, bitxikeriak:
www.txintxarri.eus

Hurrengo Txintxarri paperean,
Lasarte-Oria Bai! Krosa berezia
urriaren 31n (osteguna)
argitaratuko dugu.



txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administrarria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Elizagirre, Inigo Gonzalez,
Maddi Zaldúa eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maider Galardi, Mikel Yarza,
Nerea Segura, Lierni Rekondo eta
Aizpea Amas.

Banatzaileak

Ioar Gainza, Egoitz Epelde,
Erlantz Ezeiza, Inigo Garcia eta
Jose Lanchas.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia



HALLOWEEN

Urriak **31** Caddie plazan
(Atsobakar)

17:00etatik aurrera

ANTOLATZAILEA

Stratford ingeles akademia

KOLABORATZAILEAK

Buenetxea kafetegia | Ola markogintza | Dulce Tentación

Photocall-a
Musika

Trick or treat / Trukua ala tratua

Mozorro desfilea

Tailerrak

**... eta gauza
gehiago!!**



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO



LASARTE-ORIA
TRATU ON BAT
UN BUEN TRATO



 **aldaz**
hortz klinikak · clínicas dentales

943 36 63 77

www.dentalaldaz.com



20 URTETAKO
ODONTOLOGIA ZERBITZUAREKIN
GUSTURA DAUDEN 38.000 PAZIENTE

RPS 233/13



Lasarte-Oria Bai!
Krosarekin bat

Lasarte-Oria
Ola kalea, 10

Tolosa
San Frantzisko, 39

Elgoibar
San Bartolomé, 22